



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI BURUZKO ONLINE IKASTARORAKO DEIALDIA

Justizia Administrazioako Zuzendaritzak Emakumeen Aurkako Indarkeriari buruzko ikastaroa eskaintzen du, on-line modalitatean

Baldintzak:

1. Ikastaroa, bereziki, Euskal Herriko Justizia Administrazioako karrerako eta bitarteko funtzionarioentzako zuzenduta dago, aktiboan daudenentzako.
2. Automatrikulatzeko epea argitaratzen denetik, **2023ko irailaren 21eko goizeko 08:00etara arte** izango da .Hurrengo estekaren bitartez egingo da:
 - [Emakumeen Aurkako Indarkeria online izen ematea](#)

modu honen bidez aurkeztutako eskabideak bakarrik hartuko dira kontuan.
3. Ikastaroa, **20 orduko** iraupena duena, **urriaren 4an hasiko da, 14:00etan, eta urriaren 25an amaituko da, 08:00etan**. Epe horretan ikasleak online sar daitezke ikastarora. Hasierako egunean, posta elektronikoko bat bidaliko zaie ikastarorako onartu direnei. Erabiltzailea, pasahitza eta ikastaroan nola sartu adieraziko zaie posta horretan.
4. Ikastaroa moduluz osatuta dago. Modulu bakoitza amaitzeko, autoebaluazio-test bat egin behar da. Test horri esker, ikasleak zenbat aurreratu duen jakingo du, eta moduluak behar beste errepikatzeko aukera izango du, modulua behar den moduan ulertu eta ikasi arte.
5. Azterketa egiteko eskubidea izateko, ikasleak **ikastaroak dituen modulu guztiak ikusi beharko ditu pantailan, eta ikastaroko test guztiak egin beharko ditu.**
6. Ikastaroa amaituta, **urriaren 27tik (14:00etan) azaroaren 06ra (goizeko 8:00ak) bitartean**, ikastaroaren **azterketa (online)** egiteko epea irekiko da.